



EBAZPENA (Esptea.: 10/08, ZESTA-PUNTA)

Osoko bilkura

Javier Berasategi Torices jauna, presidentea

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, kidea

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2009ko otsailaren 26an

Lehiaren Defentsako Euskal Auzitegiak, goian adierazitako kideekin eta hizlaria **Juan Luis Crucelegui Garate jauna** izanik, ondorengo ebazpena eman du 1/2008 espedientean. Eusko Basque S.L.ren aurka eta Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren aurka hasi zen espedientea, Lehiaren Defentsako 15/2007 Legearen aurkako ustezko jardunbideagatik, zesta-puntako jaialdiak antolatzerakoan eta telebistaz ematerakoan.

GERTAKARIAK

(1) 2007ko irailaren 26an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (LDEZ), IÑAKI EGIGUREN URBISTONDO jaunak, JAI ALIVE, S.L.ren izenean eta ordezkari gisa (aurrerantzean Jai Alive), eginiko salaketa sartu zen. Salaketa EUSKO BASQUE, S.L.ren aurka (aurrerantzean Eusko Basque) eta EUSKAL IRRATI TELEBISTA-RADIO TELEVISIÓN VASCA zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren aurka (aurrerantzean EITB) egin zuen. Ondokoa adierazi zuen salaketan:

Telebistako kirol emanaldietarako kontratua daukate EUSKO BASQUE, S.L.k eta EUSKAL IRRATI TELEBISTA-RADIO TELEVISIÓN VASCA zuzenbide pribatuko erakunde publikoak. Zesta-puntako jaialdiak antolatzen dituzten bi enpresen (hau da, EUSKO BASQUE, S.L. eta JAI ALIVE, S.L.ren) arteko lehia itxuraldatzen du kontratu horrek. Kontratuaren arabera diru-zenbateko jakin bat ordaindu behar da zesta-puntako partida kopuru jakin bat telebistatik ematearen orde. Diru hori oso-osorik kobratzen da, nahiz eta erakunde publikoak partidak telebistan eman ez.



EUSKO BASQUE, S.L.k telebista kontratua baliatzen du JAI ALIVE, S.L. merkatutik baztertzeke. Izan ere, frontoien jabeek (udalak, gehienetan) nahiago dute zesta-punta jaialdien antolaketa enpresa horri eskatzea, telebistan emango dutela bermatzen baitu.

Era berean, EUSKO BASQUE, S.L.k bere baldintzak ezartzen ditu federakuntzek antolatutako txapelketetan (ez jaialdietan). Horrela, partidak telebistan ematearen truke, txapelketetara bere enpresako pilotari gehiago gonbidatu behar dituzte lehiakideenak baino.

- (2) 2007ko irailaren 28an, LDEZek ohar labur bat bidali zion Lehiaren Defentsako Estatuko Zerbitzuari (gaur egun Lehiaren Batzorde Nazionaleko Ikerketa Zuzendaritza denari), atzemandako jokabideak azalduz, jokabideen euskarri den dokumentazioarekin batera, estatuak eta autonomi erkidegoek lehiaren defentsako gaietan dituzten eskumenak koordinatzen dituen otsailaren 21eko 1/2002 Legeak 2.1 artikuluan ezarritakoa betez, eta Euskal Zerbitzuaren eskumenekoa zela jakinarazi zen.
- (3) 2007ko urriaren 17an, Lehiaren Defentsako Estatuko Zerbitzuak ofizio bat bidali zuen. Bertan azaldu zuenez, jasotako proposamena onartuz, LDEZ gaiaren berri izateko eskuduntzat jo zuen.
- (4) 2007ko urriaren 18an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza zuzendariak, LDEZeko arduradun, Lehiaren Defentsako Legeak 36. artikulua 1. eta 4. idatz-zatietan ezarritakoari jarraiki, EITB eta Eusko Basqueren kontrako zehapen espedientea hasia erabaki zuen, Lehiaren Defentsako Legeak debekatzen dituen lehia murrizteko jarduerak egiteagatik. Ebazpen horren bidez, jarduerak EITB eta Eusko Basqueri, eta salatutako gertaerei lotuta agertzen diren gainerako pertsonen edo erakundeen dagozkiela jotzen da. Bestalde, GUILLERMO ARANZABE PABLOS izendatu zen espedientearen instrukzio-egile, eta ZORIONE GARITANO AZKARRAGA idazkari.
- (5) Ebazpen hori 2007ko urriaren 19an jakinarazi zitzaion interesdunei. Era berean, 2007ko urriaren 19an LDEZari espedientearen hasieraren berri eman zitzaion.
- (6) 2008ko otsailaren 11n, LDEZean Iñaki Egiguren Urbistondo jaunaren idazki bat sartu zen, Jai Aliveren izenean eta ordezkari gisa. Idazkiaren bidez, 2007ko irailaren 26an aurkeztutako salaketa MASTER JAI, S.L. enpresari ere (aurrerantzean, Master Jai) zuzendu zion.
- (7) 2008ko otsailaren 13an, probidentzia bat eman zen. Beraren bidez, xedatu zen zehapen espediente honetako jarduketak Master Jai ere badagozkiola, Eusko Basqueri eta EITBri bezala.
- (8) 2008ko otsailaren 20an, Jai Alivek LDEZari idazki bat aurkeztu zion, Eusko Basque eta EITBren arteko kontratua ez betetzeko kautelazko neurria eskatuz. Zehazki, eskatu zuen espedientea ebatzi arte EITBk Eusko Basque eta Master Jairen kirol jaialdien emanaldirik ez egiteko eta bi sozietate horiei dirurik ez emateko.



- (9) 2008ko martxoaren 13an, eskatutako kautelazko neurriak ukatzeko proposamena egin zuen instrukzio-egileak. Proposamen hori LDEZari jakinarazi zitzaion.
- (10) 2008ko maiatzaren 20an, LDEZak ebazpena eman zuen. Beraren bidez, kautelazko neurriak hartzeko eskaera ezetsi zuen. Eskaera Iñaki Egiguren Urbistondo jaunak egin zuen, Jai Aliveren izenean eta ordezkari gisa.
- (11) 2008ko ekainaren 2an, LDEZean Juan Luis Diego Casals jaunaren idazkia sartu zen, EITBren izenean eta ordezkari gisa. Idazkian, zehapen prozedura hitzarmen bidez amaitzeko jarduketak hasia erabakitzeko eskatu zuen. Eskaera hori instrukzio-egilearen probidentziaren bidez onartu zen, egun berean, eta interesdunei jakinarazi zitzaion.
- (12) 2008ko ekainaren 2ko probidentzia berean, erabaki zen zehapen prozeduraren gehienezko epearen zenbaketa etetea, harik eta hitzarmen bidezko amaiera burutu arte.
- (13) 2008ko ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean, EITBk eta Eusko Basquek LDEZari zeinek bere konpromiso-proposamena bidali zioten. Aurkeztutako proposamenak interesdunei bidali zitzaizkien, alegazio egokiak egin zitzaizkien.
- (14) 2008ko irailaren 5ean, espedientearen instrukzio-egileak probidentzia egin zuen. Beraren bidez, interesdunek proposatutako zenbait konpromiso ezetsi zituen, atzemandako arazoak konpontzen ez zituztelakoan, eta konpromiso berriak aurkezteko epe berria eman zien.
- (15) Eusko Basquek eta EITBk idazki bana aurkeztu zuten 2008ko irailaren 16an eta irailaren 25ean. Haietan adierazi zuten hitzarmen bidezko amaierako prozedurarekin jarraitu nahi zutela.
- (16) 2008ko azaroaren 27an, EITBk konpromiso berriak proposatu zituen, atzemandako lehia arazoak konpontzeko asmoz (1. eranskinean daude).
- (17) 2008ko abenduaren 4an, Eusko Basquek konpromiso berriak proposatu zituen, atzemandako lehia arazoak konpontzeko asmoz (2. eranskinean daude).
- (18) Bi enpresek aurkeztutako konpromisoak aztertu ondoren, LDEZak hitzarmen bidez amaitzeko proposamena idatzi zuen eta LDEAri bidali zion 2008ko abenduaren 8an.
- (19) LDEAk, 2009ko otsailaren 26ko osoko bilkuran, espediente honetaz eztabaidatu zuen eta epaitza eman zuen.
- (20) Hauek dira interesdunak:
- EUSKO BASQUE S.L.
 - EUSKAL IRRATI TELEBISTA-RADIO TELEVISION VASCA zuzenbide pribatuko erakunde publikoa



- JAI ALIVE S.L.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

(21) Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horretako zortzigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz, eta Lehiaren Defentsarako Euskal Organoak sortzeari buruzko 81/2005 Dekretuarekin bat etorriz, auzitegi honek 9/2007 espedientea (LDEZak hasia) hitzarmen bidez bukatzeko proposamena ebatzi behar du.

(22) Prozeduraren tramitazioan, Lehiaren Defentsarako Araudian xedatutakoa, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuz onetsia, eta batez ere 39. artikuluan xedatutakoa, errespetatu behar da.

(23) Aldez aurretik, espedientea hitzarmen bidez amaitzeko exijitzen diren inguruabar guztiak gertatzen direla adierazi beharra dago. Zehazki, espedientea formalki hasi da eta oraindik ez da egin proposamen txostenik. Gainera, salatutako enpresek espedientea amaitzeko eskatu dute, hitzarmen bidezko prozedura erabiliz. Idazki banaren bidez adierazi dute konpromisoa hartzen dutela salatutako jokabideen ondorioz sortu diren lehia arazoak konpontzeko.

(24) Beraz, baldintza horiek egiaztatutakoan, Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen 52. artikuluen arabera eta araudiko 39. artikuluen arabera, LDEAri dagokion eginkizuna da alderdiek azaldutako konpromisoak aztertzea, hau da, espedientean salatutako jokabideek lehian sortu dituzten ondorioak konpromiso horien bidez konponduko liratekeen eta interes publikoa behar bezain bermatuta geratuko litzatekeen egiaztatzea.

BIGARRENA.- SALATUTAKO JOKABIDEAK

(25) 2007ko irailaren 26an, Jai Alive enpresak LDEZaren aurrean ondoko jokabideak salatu zituen:

“Telebistako kirol emanaldietarako kontratua daukate EUSKO BASQUE, S.L.k eta EUSKAL IRRATI TELEBISTA-RADIO TELEVISIÓN VASCA zuzenbide pribatuko erakunde publikoak. Zesta-puntako jaialdiak antolatzen dituzten bi enpresen (hau da, EUSKO BASQUE, S.L. eta JAI ALIVE, S.L.ren) arteko lehia itxuraldatzen du kontratu horrek. Kontratuaren arabera diru-zenbateko jakin bat ordaindu behar da zesta-puntako partida kopuru jakin bat telebistatik ematearen orde. Diru hori oso-osorik kobratzen da, nahiz eta erakunde publikoak partidak telebistan eman ez.



EUSKO BASQUE, S.L.k telebista kontratua baliatzen du JAI ALIVE, S.L. merkatutik baztertzeke. Izan ere, frontoien jabeek (udalak, gehienetan) nahiago dute zesta-punta jaialdien antolaketa telebistan emango dutela bermatzen duen enpresari eskatzea.

Era berean, EUSKO BASQUE, S.L.k bere baldintzak ezartzen ditu federakuntzek antolatutako txapelketetan (ez jaialdietan). Horrela, partidak telebistan ematearen truke, txapelketetara bere enpresako pilotari gehiago gonbidatu behar dituzte lehiakideenak baino.”

(26) 2007ko urriaren 18an, Ekonomia eta Plangintza zuzendariak, LDEZeko arduradun, Lehiaren Defentsako Legeak 36. artikulua 1. eta 4. idatz-zatietan ezarritakoari jarraiki, EITB eta Eusko Basqueren kontrako zehapen espedientea hastea erabaki zuen, Lehiaren Defentsako Legeak debekatzen dituen lehia murrizteko jarduerak egiteagatik.

HIRUGARRENA.- MERKATU GARRANTZITSUA

(27) Espediente honen esparrua zesta-punta kirolari dagokio. Merkatu garrantzitsuaren definizioan bi merkatu bereizi ditzakegu, elkarri lotuak: zesta-puntako jaialdien antolaketa eta partida horiek telebistaz ematea.

(28) Merkatu biek lotura estu-estua daukate, partidak telebistaz emateko aukerak eskalako ekonomiak edo sinergiak sortzen dituelako zesta-puntako jaialdiak antolatzen lan egiten duen enpresarentzat, arrazoi hauengatik:

- Pilotalekuen jabe diren udalek interes handiagoa daukate jaialdiak beren frontoietan antolatzeko.
- Telebistak dirua ordaintzen du jaialdiak telebistan emateagatik.
- Babesleekin publizitatea kontratatzen da.
- Irudi eta publizitate eskubideak lagatzen dira.

(29) LDEZaren proposamenean, telebistak kirolaren sustapenean eta finantzazioan daukan garrantzia nabarmentzen da. Izan ere, kirola komunikabideen bitartez zabaltzeak berebiziko garrantzia hartu du azken urteetan, ekonomiaren ikuspegitik. Europako Batzordeak argitaratu zuen Kirolari buruzko Liburu Zurian haxe dakar (COM (2007) 391 azkena, 2007-07-11koa): “kirolaren balio ekonomikoaren zati bat, gero eta handiagoa, jabetza intelektualeko eskubideei lotuta dago. Eskubide horiek egile eskubideekin, komunikazio komertzialekin, markekin, eta irudi eta hedatze eskubideekin zerikusia dute. Kirol sektorearen eta komunikabideen (batez ere telebistaren) arteko harremani dagozkien arazok izugarritzko garrantzia hartu dute, komunikabideak Europako kirol profesionalaren diru-sarrerarik handiena bihurtu baitira. Kirol gertakariak hedatzeko eskubideak, bestalde, ezinbesteko eduki-iturri bihurtu dira komunikabideetako operadore askorentzat”.



(30) Kirol profesionalaren eta telebistaren arteko harremana are handiagoa da ikus-entzule asko dituzten kiroletan. Zesta-puntak, ordea, ez du interesik telebista operadoreentzat partidak emateko orduan, kirol honek ikus-entzule gutxi baititu. LDEZak estatuaren eremuko gainerako telebistei informazioa eskatu die. Telebista horiek erantzun dute hainbat arrazoiengatik ez dutela eman zesta-punta partidarik: oso jende gutxi ikusten duelako kirol hau, ekonomikoki ez delako errentagarria, pilotaren abiadura handiaren ondorioz partidak grabatzeko zailtasunak eta berezitasun teknologikoak daudelako, eta ekoizpen kostu handiak daudelako.

(31) Kirol honek ikus-entzule gutxi erakartzen dituenez gero, eta estatuaren eremuko telebista operadoreek eskaintzarik egiten ez dutenez gero, EITBk soilik ematen ditu zesta-punta partidak, kirol hau sustatzeko helburuarekin, zesta-punta euskal kulturaren bereizgarrietako bat baita.

(32) Horrela, LDEZak eskatuta, EITBk ondokoa azaldu du: “kirol honen emanaldiak komunikabide publiko garen aldetik egiten ditugu. Betiere, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoa sortzeko legean ezarritako printzipioak betez jarduten dugu, bestek beste, euskal kultura sustatzeko helburuarekin. Ospea eta onespina dauzkaten hemengo kirol gertakarien emanaldia eskaintzen diegu herritarrei, hala nola pilota partidak oro har eta zehazki zesta-punta”.

(33) Euskal kultura dirua irabazteko asmorik gabe hedatzeko funtzio hori, telebista publikoak betetzen duena, ezinbestekoa da zesta-punta maila profesionalean mantentzeko eta garatzeko.

LAUGARRENA.- ENPRESEN KOKAPENA MERKATUAN

(34) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan, zesta-punta profesionala oso sektore txikia da. Ekartzen dituen diru-sarrerak ez dira garrantzitsuak. Gaur egun bi enpresa baino ez dira ari eremu honetan: Eusko Basque eta Jai Alive. Lehenengoa espediente honetan salatutakoa da eta bigarrena salatzailea.

(35) Eusko Basque 1996an eratu zen enpresa gisa. Jai Alive, oster, 2004. urtean sortu zen. 2006. urtean, enpresa horiek 1.190.000 € fakturatu zuten bien artean. Diru horren %92a lehenengoa fakturatu zuen eta %8a bigarrenak.

(36) Enpresa horiek pilotari kopuru jakin bat daukate plantillan urte osoan zehar. Halere, maila goreneko pilotarietako askok kontratu egonkorak daukate Estatu Batuetan, Dania, Miami eta Orlandoko frontoiekin. Han, kiniela sistema batean jokatzen dute neguan, eta udan EAera etortzen dira zesta jaialdietan parte hartzeko, bai Estatu Batuetako enpresen izenean, bai euskal enpresetako batekin sinatutako lagapen akordioen bidez.

(37) Bi enpresek zesta-punta jaialdiak antolatzen dituzte urte osoan zehar, zeinek berea. Horrela, espediente honen instrukzioan enpresek eman duten informazioaren



arabera, Jai-Alivek 2005-2007 denboran 190 jaialdi antolatu ditu. Eusko Basquek, berriz, 392 jaialdi antolatu ditu denboraldi berean.

(38) Jai Alivek salaketa ipini ondoren Master Jai enpresarengana ere hedatu zuen. Azken enpresa hori sortu berria da. Haren akziodun nagusia Eusko Basqueren akziodun nagusia da, baina oraingoz enpresa berri horrek ez du jarduerarik egiten zesta-punta profesionalaren eremuan.

(39) Beste entitate batzuk daude, hala nola EUSKAL PILOTAREN EUSKAL FEDERAKUNTZA, EUSKAL PILOTAREN NAZIOARTEKO FEDERAKUNTZA eta MUNDUKO PILOTA BATZARRA. Erakunde horiek zesta-puntako txapelketa profesionalak antolatzen dituzte, eta haietan Eusko Basqueko eta Jai Aliveko pilotariek parte hartzen dute. Txapelketarik garrantzitsuena, kirol ikuspegitik eta ikuskizun mediatikoa den aldetik, Zesta Puntako Munduko Txapelketa da. 1991. urteaz geroztik egiten da. Azken bi urteetan MUNDUKO PILOTA BATZARRAK antolatu du.

(40) Enpresen diru-sarreraren iturri nagusietako bat, pilotalekuetako sarrerez eta apustuez gain, publizitatea da, irudi eta hedatze eskubideak saltzeari esker.

(41) Merkatu honetan zailtasun handiak daude zesta-puntako jaialdiak emateko interesa daukaten telebista operadoreekin kontratuak sinatzeko, aurreko oinarri juridikoan azaldu denez. Horregatik, EITB enpresak, komunikabide publikoa den aldetik, ezinbesteko funtzioa betetzen du lehian ari diren enpresak finantzatzeko orduan.

(42) Horri buruz, Eusko Basque enpresak, 1998. urteaz geroztik, EITBrekin kontratu bat sinatu zuen, zesta-puntako partidak emateko. Kontratu honek zenbait aldaketa jaso ditu eta orain arte berriztatzen jarraitu du. Enpresa biek 2007ko urtarrilaren 1ean sinatu zuten azken kontratua.

(43) Indarrean dagoen kontratuak 3 urteko iraupena du. Indarraldia 2009ko abenduaren 31n bukatuko da, eta 2010eko abenduaren 31ra arte luza daiteke. Kontratu honen bidez, *“EUSKO BASQUEk konpromisoa hartzen du zesta-punta profesionaleko gutxienez hogeita bi (22) jaialdi antolatzeko urtean eta ikus-entzunezko esplotazio eskubideak EITBri lagatzeko. Jaialdi horien artean Zesta Puntako Munduko Txapelketak egon behar da derrigor”*.

(44) Kontratu hau dela bide, EITBk 48 jaialdi eman zituen telebistan 2005-2007 urteetan. Horietatik 16 Munduko Txapelketarenak izan ziren.

(45) Jai Alive enpresak ez dauka kontratu bidezko harreman egonkorrik EITBrekin, jaialdi kopuru jakin bat telebistan emango duela bermatzen dionik. Halere, 2006-07 denboraldian, Jai Alivek antolatutako 4 jaialdi eman zituen EITBk, unean uneko akordioetan oinarrituta.

BOSGARRENA.- ATZEMANDAKO LEHIA ARAZOEN ALDEZ AURRETIKO EBALUAZIOA



(46) Alderdiek proposatutako konpromisoak azaldu eta lehiaren ikuspegitik balorazio juridikoa egin aurretik, komenigarria litzateke zesta-punta profesionalaren barruan aurkitu ditugun lehia arazoak baloratzea, EAEren lurralde eremuan.

(47) Espedientean dauden jarduketetatik ondorioztatu dezakegu Eusko Basque enpresak funtsezko eginkizuna bete duela zesta-punta kirol profesionala mantentzean, 1996. urtean sortu zenetik. EITB erakunde publikoak kirol hau sustatzean eta finantzatzean egin duen lana ere nabarmendu beharrekoa da. Ondorioz, EITBrekin zesta-punta partidak telebistan emateko sinatu duen kontratuari esker, Eusko Basque finantzazio iturri bat lortu du. Iturri hori beharrezkoa da berarentzat, EAEko pilotalekueetan jokatzeko maila goreneko pilotari profesionalen plantilla bat mantentzeko.

(48) 2004. urtean Jai Alive zesta-punta profesionalaren sektorean sartzeak hemengo kirol tradizional hau Euskadin maila profesionalen bultzatzeko aukera berri bat ekarri du. Enpresa berri hau zestaren merkatuan sartzeak orain arte Eusko Basqueren eskuetan zegoen merkatuaren egitura-aldaketa ekarri du.

(49) Gaur egun, enpresa salatzaileak eta salatutako enpresek onartzen dute zesta-puntak, maila profesionalen, une zaila bizi duela. Zesta-puntako jaialdietan, gainera, oso zaletu gutxi joaten da pilotalekuek zuzenean ikustera eta telebistan ere oso jende gutxi ikusten ditu. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzak egindako Euskal Pilotaren 2006-2010eko Plan Estrategikoak egungo egoeraren barne analisisian adierazi zuenez, *“zesta-punta pilota jokorik nazioartekoena da, baina gaur egun krisi sakona bizi du”*.

(50) Beraz, zesta-puntak gainbehera handia bizi du gaur egun, gizartean ez delako sobera erakargarri. Horrek, era berean, interes falta nabarmena sortzen du telebista kateetan, telebistan zesta-punta partidak emateko orduan. EITBk, komunikabide publikoa den aldetik, enpresa ezberdinek antolatutako kirol honetako partidak nahiko sarri eman ditu. Horrela, ezinbesteko tresna bihurtu da kirola sustatzeko eta merkatu honetan lan egiten duten enpresak finantzatzeko.

(51) Jai Alivek salatutako jokabideak Eusko Basque eta EITB lotzen dituen kontratuari dagozkio. Salatzaileak zenbait jokamolde aipatu ditu, zesta-puntaren merkatuan lehia librea itxuraldatzen dutenak, batez ere faktore hauen ondorioz:

- Eusko Basquek merkatuan daukan lekua, partidak telebistan emateko orduan EITBk emandako eskusibitateari esker.
- Kontratu hori dela bide eskuratzen dituen etekinak.
- Kontratuaz egiten duen gehiegizko erabilera, bera merkatutik baztertzeko. Eusko Basqueren pilotariek jokatzeko bultzatzen da horrela, beste batzuek antolatutako txapelketetan eta bereziki Zesta Puntako Munduko Txapelketan, bere pilotarien kaltetan, nahiz eta kalitate aldetik antzekoak diren.



(52) Instrukzioan, Jai Alivek ez ditu salatutako jokabideak behar bezala dokumentatu. Hau da, ez da frogatu enpresa berria merkatutik kanporatzeko ekintzak egin direnik. Egia da Eusko Basque enpresak merkatu honetan daukan lekua oso garrantzitsua dela, batez ere EITBekin sinatutako kontratuari esker. Horrek finantzazio iturri garrantzitsu bat bermatzen baitio eta Jai Alivek ez du halako finantzazio iturririk eskura. Baina horrek, berez, ez du esan nahi abusuzko jokabidea dagoenik, lehiaren defentsaren ikuspegitik zigortu beharrekoa.

(53) Izan ere, EITBk, euskal kultura bere alderdi guztietan sustatzeko funtzioa daukan erakunde publikoak, ez du zertan eman diru publiko gehiago edo telebista espazio gehiago kirol hau sustatzeko, merkatuan enpresa berria sortze hutsagatik. Lehiaren ikuspegitik, ordea, komenigarria da helburu horretarako dauden bitartekoak ahalik eta modurik eraginkorrenean erabil daitezela. Are gehiago, EITBk LDEZari azaldutako alegazioetan adierazi duenean gaur egungo egoeran ez daukala asmorik kirol honetako partidak telebistan emateko dauden programazio espazioak eta diruak areagotzeko.

(54) Auzitegi honek uste du salatutako jokabideak analizatzeko, lehiaren defentsaren arauen ikuspegitik, kontuan izan behar dela dagokien testuinguru ekonomiko eta soziala, atzemandako lehia arazoak konpontzen dituen erabaki aproposa hartu ahal izateko.

(55) Lehenik eta behin, aintzat hartu behar da zesta-punta kirol tradizionala dela, Euskal Herrian sortu eta garatu dena. Nazioartean ere zabaldua dago, bereziki Frantzia, Estatu Batuetan eta Filipinetan, euskal pilotari asko herri haietara joan baitziren, euren lanbidean duintasunez jardun ahal izateko.

(56) Gure kulturaren barruan zesta-punta euskal kirol tradizionala da, nahiz eta gainbeheran egon. Horregatik, sektore publikoak kirol hau bultzatzeko borondate argia dauka, eta sektore pribatuak ere kirol hau garatzeko ahalegina egiten du, merkatuan dauden enpresen bidez. Hori modu ponderatuan baloratu behar da. Zesta-punta bultzatzeko eta haren desagerpena galarazteko bideratzen diren faktoreak pilatzen dira hemen, giza faktoreak nahiz diru faktoreak. Hortaz, kudeaketa eraginkorra beharrezkoa da, kirol hau mantentzeko eta garatzeko, lehia eta lehiakortasuna sustatuz.

(57) Merkatu honetan dauden agente jarduleak, publikoak eta pribatuak, modu aktibo eta proaktiboan aritu behar dira, helburu bakarra lortzeko: zesta-puntaren garapen iraunkorra.

(58) Zentzu horretan, enpresei dagokie jaialdiak antolatzea, pilotaririk onenen parte hartzearekin, lehia handiarekin. Partida horiek telebista kateei eskaini behar zaizkie eta publizitate egokia egin behar zaie.

(59) Merkatu honetan dauden bi enpresek (Eusko Basque eta Jai Alive) zeresan garrantzitsua dute egiteko horretan. Horregatik, beharrezkoa da haien garapen



estrategiek (kirol lehiaren oinarrituak) sektore publikoak kirol honen alde egin nahi dituen jarduketan babesa jasotzea, inolako bazterketarik gabe.

(60) Kirol honen alde egiten dituen jarduketetan, beste komunikabide batzuen eskaintzarik ez dagoenez, EITBk modu inpartzialean jokatu behar du, bere jardunean gardentasun, objektibotasun eta bazterketa-ezaren printzipioak betez.

(61) EITBk eta Eusko Basquek sinatutako kontratua, 2009ko abenduaren 31ra arte indarrean dagoena, ezinbestekoa da zesta-punta bultzatzeko estrategia garatzeko. Izan ere, jarduera horiek kontratatzean segurtasun printzipioa bermatzen du urte osoan zehar, pilotutako esperientziari esker. Halaxe adierazi zuen EITBk LDEZaren informazio eskaerari erantzunez:

“Eusko Basquek kontratuan ezarritako betebeharrak bete ditu beti, partidaren kopuruari, kalitateari eta interesari dagokienez”.

(62) Halere, kontratutik ondorioztatutako betebeharrak betetzeak ez du esan nahi ez denik kontuan izan behar enpresa berri bat dagoela, Jai Alive, hain zuzen ere. Azken enpresa horren egitekoa ere funtsezkoa da zesta-puntari bultzada berri bat emateko helburua lortzeko. Horregatik, EITBk, bere programazioan dauzkan espazioak eta posibilitate ekonomikoak kontuan izanik, Jai Alivek antolatutako partidak telebistan emateko aukera aintzat hartu behar du, EITBk kirol ekitaldien antolatzaileei exijitu ohi dien kalitate, interes eta kaudimen irizpideak bermatzen baldin badira.

(63) Bestalde, Eusko Basque eta EITBren arteko kontratuaren kudeaketan (2. estipulazioa), bereizi behar dira enpresa kontratanteak berak antolatutako jaialdiak eta beste enpresa edo erakunde batzuek antolatutako jaialdiak (Euskadiko Pilota Federakuntza, Nazioarteko Euskal Pilota Federakuntza eta Munduko Pilota Batzarra), horietan Eusko Basqueko zein Jai Aliveko pilotariak parte har baitezakete. Zehazki, Zesta Puntako Munduko Txapelketak, azken bi edizioetan Munduko Pilota Batzarrak antolatu duena, garrantzi berezia dauka zesta-puntaren barruan, bertan Eusko Basqueko, Jai Aliveko eta AEBetako beste enpresa batzuetako pilotaririk onenak aritzen baitira. Hain zuzen ere, EITBk eta Eusko Basquek sinatutako kontratuak partida horien emanaldiari lehentasuna ematen die.

(64) Eusko Basquek dauzkan betebeharrak (hau da, txapelketa horiek telebistan emateko eskubideak eskuratzea eta ikus-entzunezko bitartekoekin esplotatzea EITBri bakarrik lagatzea) modu objektiboan bete behar dira. Hau da, ezin daitezke enpresa horren pilotarien parte hartzea mesedetu beste enpresa batzuetako pilotarien kaltetan. Era berean, partida horiek emateagatik sortzen diren irudi eta publizitate eskubideak kudeatzeko, Eusko Basquek kontuan izan behar du enpresa bakoitzak zenbat pilotari dituen, enpresa horietako bakoitzari proportzioan dagokion ordainketa bermatze aldera.

(65) 2008ko maiatzaren 20ko ebazpenean (MC 1/2008 Eusko Basque, S.L. ebazpena) auzitegi honek agerian utzi zuen Eusko Basque eta EITBk sinatutako kontratuaren garrantzia, merkatu garrantzitsuan funtsezko elementua den aldetik. Kontratuaren garrantziari buruzko iritzia ez da aldatu prozeduraren une honetan. Horregatik,



auzitegiak uste du kontratuaren indarraldia berezko amaiera datara arte luzatu behar dela (2009ko abenduaren 31), baldin eta kontratuaren aplikazio objektiboa bermatzen bada.

(66) Finean, EITBk eta Eusko Basquek sinatutako kontratuaren indarraldian, kontratua egin duten alderdiei (salatutako enpresei alegia) dagokie kontratuaren aplikazio objektiboa ziurtatzen duten konpromisoak agertzea, Jai Alive enpresa telebistaren merkatutik baztertua ez izateko moduan, eta bere pilotariek jokatzeko dituzten partidak emateagatik egokitzen zaizkion eskubideak (irudi eta publizitate eskubideak) kobratu ahal izateko moduan.

(67) Azkenik, 2010. urtetik aurrera, kontratuaren indarraldia bukatutakoan, auzitegi honen iritziz, EITB erakunde publikoari dagokio oinarri egokiak ezartzea, zesta-punta profesionalaren merkatuan lehiatzen diren enpresak telebista merkatuan baldintza berberetan sartu ahal izateko. Merkatuan sartzeko baldintzak objektiboak eta ez-baztertzailerak izango dira. Enpresaren plantillaren kalitatea, antolatu beharreko jaialdien kopurua eta maiztasuna, enpresaren kaudimena, eta legez dagozkion zerga eta soldata betebeharrak betetzea izango dira baldintza horiek.

SEIGARRENA.- HITZARMEN BIDEZ AMAITZEKO PROZEDURA GARATZEA ETA ALDERDIEK PROPOSATUTAKO KONPROMISOAK

(68) Salatutako enpresek, prozeduraren hasierako fase bertatik, borondate argia erakutsi dute Jai Alivek salatutako lehia arazoak hitzarmen bidezko amaieraren bidez konpontzeko, sinatutako kontratuaren aplikazioa merkatuaren lehia-egoera berriari egokitzeko helburuarekin. Prozedura hori Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen 52. artikuluan aurreikusita dago.

(69) Horrela, 2008ko ekainaren 2an, EITBk eskatu zuen zehapen prozedura hitzarmen bidez amaitzeko jarduketak has zitezela. Eskaera instrukzio-egilearen probidentziaren bidez onartu zen, egun berean, eta interesdunei jakinarazi zitzaizkien.

(70) 2008ko ekainaren 30ean eta uztailearen 1ean, salatutako enpresek (EITBk eta Eusko Basquek) LDEZari zeinek bere konpromiso-proposamena bidali zioten. Proposamen horiek interesdunei bidali zitzaizkien, alegazio egokiak egin zitzaizkien. Jai Alivek soilik egin zituen alegazioak.

(71) 2008ko irailaren 5ean, espedientearen instrukzio-egileak probidentzia egin zuen. Beraren bidez, interesdunek proposatutako zenbait konpromiso ezetsi zituen, atzemandako arazoak konpontzen ez zituztelakoan, eta konpromiso berriak aurkezteko epe berria eman zuen. Komunikazio horren aurrean, bi enpresek beren-beregi adierazi zuten hitzarmen bidez amaitzeko prozedurarekin jarraitzeko interesa zeukatela.

(72) 2008ko urrian eta azaroan, LDEZak zenbait batzar egin zituen hitzarmen bidez amaitzeko akordioan interesa zuten alderdiekin, Eusko Basque eta EITB, eta salatzailearekin, Jai Alive. Batzar horien helburua arazoizko akordio bat adostea eta



konpromiso batzuk onartzea zen. Horrela, lehenik eta behin, Eusko Basque eta ETBren artean indarrean zegoen kontratua bukatu arte (2009ko abenduaren 31ra arte) mantendu nahi zuten, LDEZak kontratua kautelaz eteteko proposamena ez baitzuen onartu, kontratuak arlo honetako merkatua ez itxuraldatzeko moduan kudeatuz. Bigarrenik, etorkizunerako lehia askeko merkatu baterako oinarriak ezarri nahi zituzten.

(73) Azkenik, LDEZak salatzailearekin akordio bat hitzartzea sustatu eta gero, salatutako enpresek zeinek bere konpromisoak proposatu zituzten.

(74) 2008ko azaroaren 27an, EITBk konpromiso hauek proposatu zituen:

1. *Indarrean dagoen kontratua betetzea, 2009ko abenduaren 31ra arte, hau da, indarraldia amaitu arte, kontratuan ezarritako gehienezko prezio eta zenbatekoak errespetatuz. Hau da, inola ere ez da 120.000 euro (EHUN ETA HOGEI MILA EURO) baino gehiago ordainduko kontratuan sartzen diren partidak telebistan emategatik.*
2. *EITBk ez dio EUSKO BASQUERI dirurik ordainduko Munduko Txapelketagatik 2008. urtean.*
3. *2008ko abenduaren 15a baino lehen, EUSKO BASQUE, JAI ALIVE eta MUNDUKO PILOTA BATZARRAREKIN batera, 2009. urteko Munduko Txapelketaren eguna finkatuko du. Gutxienez 8 partida emateko konpromisoa hartzen du.*

Akordiorik lortu ezean, hau da, 2009. urtean ez bada munduko txapelketarik egiten, ETBk ez du kontzeptu horregatik dirurik ordaindu beharko.

4. *Zesta Puntako Enpresen Liga Profesionala sortzen ez bada, 2010. eta hurrengo urteetarako zesta-punta partiden emanaldietarako sinatzen diren kontratuak baldintza hauek bete beharko dituzte:*
 - i. *Kontratuak urtebeteko iraupena izan behar dute. Halere, EITBk zesta-puntako partiden emanaldia 3 urtez mantentzeko konpromisoari eusten dio. Beharrezkoa bada, konpromisoa hiru urteko denboraldietan luzatuko du, baldin eta zesta-puntako partidak antolatzen dituzten alderdien arteko akordioek eta telebistan emateko baldintzek ez badiote galarazten.*
 - ii. *EITBk kalitaterik onena eskaintzen dion enpresarekin (pilotariak, ikuskizunaren formatua, egoitzak, datak, eta abar kontuan izanik) kontratua egiteko konpromisoa hartzen du. Kontratua egiten duen enpresak antolatutako jaialdiak soilik sartuko dira kontratu honetan.*
 - iii. *EITBn partidak emateko kontratua sinatu nahi duten enpresetako bakoitzeko pilotarien kalitatea baloratzeko irizpide objektiboa ranking bat izango da. Ranking hori adosten den moduan eratuko den adituen batzorde batek egingo du.*



- iv. *Kontratuan emango diren partida kopurua adieraziko da. Prezioa partida bakoitzeko ezarriko da, jaialdi arruntetarako tresnako beste modalitate batzuetako partidetan dagoen prezioan arabera.*
- v. *ETBk ikus-entzuleentzat interesgarrien diren partidak emango ditu.*
- vi. *Zesta-puntako munduko txapelketa ofizialak emateko, beste kontratu bat egingo da. Kontratua antolatzailearekin sinatuko da. Antolatzaileak pilotarien eta enpresen irudi eskubide guztiak edukitzeko konpromisoa hartuko dute.*

(75) 2008ko abenduaren 4an, Eusko Basquek konpromiso hauek proposatu zituen:

1. *Zesta-puntako pilotarien urteko rankingaren sorrera sustatzea.*

Ranking hori adituen batzorde batek egingo du, berak ezarritako irizpideetan oinarrituta. Batzordea bi enpresetako bakoitzak izendatutako kide banak eta bi enpresek izendatutako hirugarren kide batek osatuko dute. Adostasunik lortu ezean, Eusko Jaurlaritzak izendatuko du hirugarren kide hori. Batzordeak aho batez hartu behar ditu erabakiak.

2. *Indarrean dagoen kontratuaren kudeaketa objektiboa egin behar da, bukatu arte (2009ko abenduaren 31n). Zehazki, 2009ko Munduko Txapelketa Ofizialean (antolatzen baldin bada), baldintza hauek beteko dira:*

- *Eusko Basquek onartzen du jokatu duten pilotarien aukeraketa adituen batzordeak (1. puntuan aipatutakoak) egin dezala.*
- *Eusko Basquek agirien bidez justifikatuko du munduko txapelketaren antolatzaileari emanaldiaren eskubideak ordaindu izana.*
- *Eusko Basquek eta Bainetek 2009. urterako irudi eta publizitate eskubideei buruz hartu dituzten konpromisoak direla-eta, Eusko Basquek Munduko Txapelketaren antolatzaileari konpentsazio ekonomiko bat emango dio, bi alderdien artean itundu beharrekoa, kontzeptu horiengatik.*

3. *EITBri ez dio dirurik eskatuko 2008. urteko Munduko Txapelketagatik.*

4. *Zesta Puntako Enpresen Liga Profesional baten sorrera sustatuko du, JAI ALIVERekin batera, Kiroletako Zuzendaritzaren bitartekaritzarekin. 2008ko abenduaren 15a baino lehen negoziazioak hasteko konpromisoa hartuko du.*

5. *2008ko abenduaren 15a baino lehen, EITB, JAI ALIVE eta MUNDUKO PILOTA BATZARRAREKIN batera, 2009. urteko Munduko Txapelketaren eguna finkatuko du. Txapelketan parte hartzeko konpromisoa hartzen du.*



ZAZPIGARRENA.- AURKEZTUTAKO KONPROMISOEN BALORAZIO JURIDIKOA

(76) Lehiaren Defentsako uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 52. artikuluan, zortzigarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik, dauden xedapenen arabera, LDEAk “debekatuta dauden akordio eta jardunen arloko zehapen prozedurak amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleak espedientearen xede diren jokaeren ondorioz lehiari egindako kalteak konponduko dituzten konpromisoak proposatzen baditu eta interes publikoa behar bezala bermatzen bada”.

(77) Kasu honetan, atzeman diren lehia arazoak kontuan izanik, alderdiek aurkeztutako konpromisoek tratu parekidea eta ez-baztertzaila bermatu behar diete zesta-punta profesionaleko merkatuan diharduten bi enpresei, ETB telebista erakunde publikoak eskaintzen duen telebista merkatuan sartzeko. Izan ere, ETB da euskal pilotako modalitate honetako partidak ematen dituen telebista operadore bakarra: komunikabide publikoa den aldetik, besteak beste, euskal kirol tradizionala sustatu behar du. Kirol horren adibiderik garrantzitsuenetako bat euskal pilota da, modalitate ezberdinetan.

(78) Merkatuan dauden enpresek antolatutako jaialdiak ematea funtsezkoa da jaialdiak finantzatzeko. Izan ere, emanaldietatik telebista eskubideek eta irudi eta publizitate eskubideek diru-sarrerak sortzen dituzte.

(79) Gaur egun, EITB eta Eusko Basquek urte anitzeko kontratua daukate, 2009ko abenduaren 31n bukatuko dena. Kontratu honek Eusko Basqueri bermatzen dio urtean 22 partida emango direla telebistan. Horien artean, lehentasuna ematen zaie Munduko Pilota Batzarrak antolatutako Munduko Txapelketako partidei.

(80) Jai Alive enpresak ez dauka kontratu bidezko harreman egonkorrik EITBekin. Hala ere, ez dago eragozpenik enpresa horren jaialdiak EITBk telebistan emateko, unean uneko akordioetan oinarrituta, orain arte lau aldiz gertatu denez. Bestalde, bere jokalarien kopuru jakin batek beste erakunde batzuek antolatutako txapelketetan parte hartu ohi du. Txapelketa horien artean Munduko Txapelketa nabarmendu behar dugu. Munduko Txapelketako partida batzuk telebistan ematen dira.

(81) Telebista publikoaren eta enpresa bakoitzaren artean dagoen harreman asimetrikoa arrazoi historikoetan eta elkarrenganako konfiantzan oinarritzen da, EITB eta Eusko Basque 1998az geroztik baitaude harremanetan.

(82) Auzitegi honek uste du une honetan herri interesarentzat (hau da, zesta-punta mantentzeko eta sustatzeko) beharrezkoa dela kontratu hori aurreikusitako baldintzetan mantentzea, indarraldia amaitu arte. Halere, ezinbestekoa da kontratuaren kudeaketa gardena eta objektiboa bermatzea, bereziki Zesta Puntako Munduko Txapelketaren emanalditik sortutako eskubideei dagokienez.

(83) Bestalde, EITB zesta-puntako partida profesionalak emateko interesa daukan telebista bakarra den bitartean, komunikabide publikoa den aldetik, 2010etik aurrera,



enpresekin dituen harremanetan gardentasuna, objektibotasuna eta bazterketa-eza izan beharko ditu ezaugarri.

A) Eusko Basque S.L.k aurkeztutako konpromisoen balorazioa

(84) Eusko Basquek aurkeztutako konpromisoak ondoko hauek dira:

- Adituen batzorde batek jokalarien rankinga sortzea. Adituok Eusko Basquek eta Jai Alivek izendatuko dituzte.
- ETBrekiko kontratua modu objektiboan kudeatzea, zehazki, parte hartzen duten pilotarien aukeraketan eta Munduko Txapelketako eskubideen kudeaketan.
- Jai Alivekin batera, zesta-puntako enpresen liga profesionalaren sorrera sustatzea, Kirol Zuzendaritzaren bitartekaritzarekin.
- 2008ko abenduaren 15a baino lehen, EITB, Jai Alive eta Munduko Pilota Batzarrarekin batera, 2009. urteko Munduko Txapelketaren eguna finkatzea. Txapelketan parte hartzeko konpromisoa hartzen du.
- EITBri dirurik ez eskatzea 2008. urteko Munduko Txapelketagatik.

(85) Aurkeztutako konpromisoetan, ETBekin lotzen duen kontratua aipatzen da. Kontratuaren kudeaketa gardena eta objektiboa bermatzea da funtsezko helburua.

(86) Auzitegiak modu positiboan baloratzen ditu enpresak azaldutako konpromisoak, eta bereziki, Munduko Txapelketa jokatu duten pilotariak aukeratzean objektibotasuna bermatzeko konpromisoa. Horretarako, urteko rankinga antolatuko du Eusko Basquek eta Jai Alivek izendatuko duten adituen batzorde batek. Ranking hori erreferentzia nagusia izango da, unean uneko pilotaririk onenak izendatzeko.

(87) Era berean, aurreko edizioetan gertatu diren ezadostasunak kontuan izanik, ezinbestekoa da 2009ko Munduko Txapelketa zein egunetan jokatu den finkatzeko konpromisoa. Data Jai Alivek, EITBk eta Munduko Pilota Batzarrak adostu beharko dute.

(88) Azkenik, konpromisoa hartu du Jai Alivekin batera Zesta Puntako Enpresen Liga Profesionala sortzeko. Interes handiko erronka da hau zesta-punta sustatzeko: kirol honetan lehiatzen diren enpresen artean sinergia handiagoak sortu ahal izango lituzke proiektu honek, elkarrekin partida lehiakorragoak antolatuz, enpresa bietako jokalaririk onenen partaidetzarekin. Telebistaren ikuspegitik ere, formatu ikusgarriagoak erabil litezke.

(89) 2008ko Munduko Txapelketaren kontzeptuan EITBri dirurik ez exijitzeko konpromisoa ezin daiteke baloratu lehiaren defentsaren ikuspegitik. Izan ere, kontratu izaerako kontu bat da, sinatzen duten bi enpresei dagokiena.



(90) Finean, auzitegiaren ustez, espediente honetako jokabideek lehian sortutako kalteak konpontzen dituzte Eusko Basquek azaldutako konpromisoek. Halaber, zesta-punta mantentzeko eta modu iraunkorrean garatzeko dagoen herri interesa mesedetzen dute.

b) EITBk aurkeztutako konpromisoen balorazioa

(91) EITBk aurkeztutako konpromisoak ondoko hauek dira:

b.1.- 2009. urterako konpromisoak

- Indarrean dagoen kontratua betetzea, amaitu arte (2009ko abenduaren 31 arte)
- 2008ko abenduaren 15a baino lehen, Eusko Basque, Jai Alive eta Munduko Pilota Batzarrarekin batera, 2009. urteko Munduko Txapelketaren eguna finkatzea. Gutxienez 8 partida emateko konpromisoa hartzen du. Akordiorik lortu ezean, hau da, 2009. urtean ez bada mundu txapelketarik egiten, EITBk ez du kontzeptu horregatik dirurik ordaindu beharko.
- Eusko Basqueri dirurik ez ordaintzea 2008. urteko Munduko Txapelketagatik.

b.2.- 2010. urtetik aurrera esku hartzeari dagozkion konpromisoak

- Kontratuek urtebeteko iraupena izan behar dute. Halere, EITBk zesta-puntako partidaren emanaldirako konpromisoa 3 urtez luzatuko du.
- EITBk kalitaterik onena eskaintzen dion enpresarekin (pilotariak, ikuskizunaren formatua, egoitzak, datak, eta abar kontuan izanik) kontratua egiteko konpromisoa hartzen du. Kontratua egiten duen enpresak antolatutako jaialdiak soilik sartuko dira kontratu honetan.
- EITBn partidak emateko kontratua sinatu nahi duten enpresetako bakoitzeko pilotarien kalitatea baloratzeko irizpide objektiboa ranking bat izango da. Ranking hori adosten den moduan eratuko den adituen batzorde batek egingo du.
- Kontratuan emango diren partida kopurua adieraziko da. Prezioa partida bakoitzeko ezarriko da, jaialdi arruntetarako tresnako beste modalitate batzuetako partidetan dagoen prezioan arabera.
- Zesta-puntako munduko txapelketa ofizialak emateko, beste kontratu bat egingo da. Kontratua antolatzailearekin sinatuko da. Antolatzaileak pilotarien eta enpresen irudi eskubide guztiak edukitzeko konpromisoa hartuko dute.
- EITBk ikus-entzuleentzat interesgarrien diren partidak emango ditu.



(92) Euskal Irrati Telebistak aurkeztu dituen konpromisoek tratu objektiboa bermatu nahi dute, zesta-puntako jaialdien antolatzaileekin dituzten harremanetan. Horrela, bi konpromiso mota aurkezten ditu, espedientean atzemandako lehia arazoak konpontzeko.

- a) Lehenik eta behin, Eusko Basquekin lotzen duen kontratu harremana kontuan izanik, proposatu dizkion konpromisoek kontratutik sortutako betebeharrak errespetatzen dituzte. 2009. urtean egingo den Munduko Txapelketaz, erakunde publikoak konpromisoa hartu du Eusko Basque eta Jai Alive enprekin eta Munduko Batzarrarekin (erakunde antolatzailea) txapelketaren datak adosteko. Gutxienez zortzi partida emango ditu. Adierazi du akordiorik lortu ezean (hau da, munduko txapelketa ez bada jokatzeko) ez duela kontzeptu horretan dirurik ordaindu beharko, partida horiek telebistan emateagatik ordaindu behar den dirua beste txapelketa batzuetako partidetara bideratzen den diru-zenbatekoa baino askoz ere handiagoa baita.

Auzitegiak uste du konpromiso horiek egokiak direla espediente honetan salatutako jokabideen ondorioz lehia egindako kalteak konpontzeko. Urtebeteko denboraldi honetan, EITBk zenbait betebeharrak ditu, Eusko Basquerekin sinatutako kontratutik eratorriak. Betebeharrak horiek errespetatu egin behar dira, zesta-puntako partida kopuru jakin bat telebistan ematen dela bermatze aldera (euskal kirola sustatzeko). Bestalde, nabarmendu behar dugu betebeharrak horien artean ez dela sartzen Eusko Basquerekin bakarrik kontratatu beharra. Beraz, EITBk Jai Alivekin beste partida edo jaialdi batzuen emanaldia kontrata dezake. Gainera, munduko txapelketako partiden emanaldiei buruzko konpromisoak bermatzen du parte hartzaile guztiek txapelketaren antolaketa adostuko dutela, datei dagokienez eta parte hartzen duten pilotariak aukeratzeko bete beharreko irizpideei dagokienez. Jokalariak hautatzeko, irizpide objektibo bat aplikatu beharko da: pilotarien rankinga aintzat hartzea. Ranking hori Eusko Basquek eta Jai Alivek izendatutako adituek egingo dute.

Munduko Txapelketaren 2008ko edizioari dagozkion telebista eskubideak ordaintzeko betebeharrak ez izateari buruzko konpromisoa EITBren eta Eusko Basqueren arteko kontratutik eratorritako auzia da. Hori baloratzea ez dagokio auzitegi honi beraz. 2009ko edizioari dagokionean, koherentea da EITBk ez dezala ordaindu kontratuaren arabera ordaindu behar duen prezioa, baldin eta munduko txapelketa ez bada egiten aurreikusitako baldintzetan. Halere, txapelketaren datak jartzeko, pilotariak aukeratzeko irizpideetan eta telebistan eman beharreko partida kopuruan akordioa lortzeko konpromisoa hartu da. Beraz, alderdiek konpromiso horiek ez badituzte betetzen, zehapen espediente berri bat irekiko da konpromisoa urratzen duen enpresaren aurka.

- b) Bigarrenik, Eusko Basquekin duen kontratuaren indarraldia amaitzen denean, EITBk zesta-punta sustatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du, partida kopuru jakin bat telebistan emanez, dagoen aurrekontuaren arabera eta programazioaren barruan erabil daitezkeen espazioen arabera.

Horretarako, EITBk kontratazio sistema gardena eta objektiboa ezarriko du, irizpide hauekin:



- Batetik, zesta-puntako partiden emanaldiak enpresa bakar batekin kontratatze konpromisoa hartzen du. Aukeratutako enpresa kalitaterik onena eskaintzen duena izango da (pilotariak, ikuskizunaren formatua, egoitzak, datak, eta abar kontuan izanik). Horretarako, prozedura garden bat hasiko da, enpresek planteatzen den eskaintzan sartu ahal izateko. Aukeraketak objektibotasun irizpideak izango ditu.

Enpresaren aukeraketan aplikatuko duen irizpidea (pilotarien urteko rankinga kontuan izanik) egokia da, baita kontratuan ezarriko diren gutxieneko mugak, hau da, telebistan emango den gutxieneko partida kopurua eta haiengatik ordainduko den prezioa.

- Bestalde, zesta-puntako munduko txapelketa ofizialak emateko, beste kontratu bat egingo da. Kontratua txapelketaren antolatzailearekin sinatuko da. Antolatzaileak pilotarien eta enpresen irudi eskubide guztiak edukitzeko konpromisoa hartuko dute.

Konpromiso horrek txapelketaren antolaketan are objektibotasun handiagoa bermatzen du. EITBekin zuzeneko harremana izanik, erakunde antolatzaileak parte hartzeko irizpide parekideagoak ezarri ahal izango ditu, eta irudi eta publizitate eskubideen kudeaketak gehiago izango du kontuan merkatuaren errealitatea.

(93) Auzitegiak uste du EITB erakunde publikoak aurkeztutako konpromisoak, kontratuaren indarraldiaren osteko denboraldian aplikatu beharrekoak, egokiak direla espedienteko jokabideek lehian sortutako kalteak konpontzeko.

(94) Azkenik, euskal kirol eta ikuskizunek izan ohi dituzten inguruabarrak kontuan izanik, auzitegi honek uste du euskal pilotaren modalitate hau sustatzen lan egiten duten eragile guztien artean (publikoak nahiz pribatuak) harreman ona sortu behar dela une honetatik aurrera. Txalogarria da, ikuspegi horretatik, zesta-puntako liga profesionala sortzeko asmoa, administrazio publikoak sustatua eta komunikabide publikoek babestua. Proiektu horri esker baliteke zesta-puntak onarpen handiagoa lortzea, eta horrela epe ertainean errentagarri izatea.

8. KONPROMISOAK BETETZEN DIRELA ZAINTEKO ARAUBIDEA

(95) LDEA sortzeari buruzko eta Euskal Autonomia Erkidegoan LDEZaren funtzioak esleitzeari buruzko apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren 13.1 b) artikuluan (martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatua) xedatutakoaren arabera, LDEZ da onartutako konpromisoak betetzen direla zaindu behar duen organoa.



Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legea eta aplikazio orokorreko beste xedapen batzuk ikusita, auzitegiak ondokoa eman du:

EBAZPENA

Lehenengoa.- Espedientearen hitzarmen bidezko amaiera erabakitzea. Eusko Basque enpresak aurkeztutako konpromisoak (1. eranskinean ageri direnak) eta EITB irrati eta telebistako erakunde publikoak aurkeztutakoak (2. eranskinean daudenak) egokiak dira atzemandako lehia arazoak konpontzeko.

Bigarrena.- LDEZ onartutako konpromisoak betearazteko organo izendatuko da.

Ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari eta interesdunei jakinarazi behar zaie. Agerrarazi behar da, Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 48.1 artikulua eta zazpigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren 15.3 artikulua arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua egin daitekeela, EAEko Justiziako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi ondoko egunetik aurrera zenbatuta.



1. ERANSKINA

EUSKO BASQUEren KONPROMISOEN PROPOSAMENA

1. Zesta-puntako pilotarien urteko rankingaren sorrera sustatzea.

Ranking hori adituen batzorde batek egingo du, berak ezarritako irizpideetan oinarrituta. Batzordea bi enpresetako bakoitzak izendatutako kide banak eta bi enpresek izendatutako hirugarren kide batek osatuko dute. Adostasunik lortu ezean, Eusko Jaurlaritzak izendatuko du hirugarren kide hori. Batzordeak aho batez hartu behar ditu erabakiak.

2. Indarrean dagoen kontratuaren kudeaketa objektiboa egin behar da, bukatu arte (2009ko abenduaren 31n). Zehazki, 2009ko Munduko Txapelketa Ofizialean (antolatzen baldin bada), baldintza hauek beteko dira:
 - Eusko Basquek onartzen du jokatu duten pilotarien aukeraketa adituen batzordeak (1. puntuan aipatutakoak) egin dezala.
 - Eusko Basquek agirien bidez justifikatuko du munduko txapelketaren antolatzaileari emanaldiaren eskubideak ordaindu izana.
 - Eusko Basquek eta Bainetek 2009. urterako irudi eta publizitate eskubideei buruz hartu dituzten konpromisoak direla-eta, Eusko Basquek Munduko Txapelketaren antolatzaileari konpentsazio ekonomiko bat emango dio, bi alderdien artean itundu beharrekoa, kontzeptu horiengatik.
3. EITBri ez dio dirurik eskatuko 2008. urteko Munduko Txapelketagatik.
4. Zesta Puntako Enpresen Liga Profesional baten sorrera sustatuko dute, JAI ALIVEekin batera, Kiroletako Zuzendaritzaren bitartekaritzarekin. 2008ko abenduaren 15a baino lehen negoziazioak hasteko konpromisoa hartuko du.
5. 2008ko abenduaren 15a baino lehen, EITB, JAI ALIVE eta MUNDUKO PILOTA BATZARRAREKIN batera, 2009. urteko Munduko Txapelketaren eguna finkatuko du. Txapelketan parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

2. ERANSKINA



EITBren KONPROMISOEN PROPOSAMENA

1. Indarrean dagoen kontratua betetzea, 2009ko abenduaren 31ra arte, hau da, indarraldia amaitu arte, kontratuan ezarritako gehienezko prezio eta zenbatekoak errespetatuz. Hau da, inola ere ez da 120.000 euro (EHUN ETA HOGEI MILA EURO) baino gehiago ordainduko kontratuan sartzen diren partidak telebistan emateagatik.
2. EITBk ez dio EUSKO BASQUERI dirurik ordainduko Munduko Txapelketagatik 2008. urtean.
3. 2008ko abenduaren 15a baino lehen, EUSKO BASQUE, JAI ALIVE eta MUNDUKO PILOTA BATZARRAREKIN batera, 2009. urteko Munduko Txapelketaren eguna finkatuko du. Gutxienez 8 partida emateko konpromisoa hartzen du.
4. Zesta Puntako Enpresen Liga Profesionala sortzen ez bada, 2010. eta hurrengo urteetarako zesta-punta partiden emanaldietarako sinatzen diren kontratuek baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Kontratuek urtebeteko iraupena izan behar dute. Halere, EITBk zesta-puntako partiden emanaldia 3 urtez mantentzeko konpromisoari eusten dio. Beharrezkoa bada, konpromisoa hiru urteko denboraldietan luzatuko du, baldin eta zesta-puntako partidak antolatzen dituzten alderdien arteko akordioek eta telebistan emateko baldintzek ez badiote galarazten.
 - b) EITBk kalitaterik onena eskaintzen dion enpresarekin (pilotariak, ikuskizunaren formatua, egoitzak, datak, eta abar kontuan izanik) kontratua egiteko konpromisoa hartzen du. Kontratua egiten duen enpresak antolatutako jaialdiak soilik sartuko dira kontratu honetan.
 - c) EITBn partidak emateko kontratua sinatu nahi duten enpresetako bakoitzeko pilotarien kalitatea baloratzeko irizpide objektiboa ranking bat izango da. Ranking hori adosten den moduan eratuko den adituen batzorde batek egingo du.
 - d) Kontratuan emango diren partida kopurua adieraziko da. Prezioa partida bakoitzeko ezarriko da, jaialdi arruntetarako tresnako beste modalitate batzuetako partidetan dagoen prezioan arabera.
 - e) EITBk ikus-entzuleentzat interesgarri diren partidak emango ditu.



- f) Zesta-puntako munduko txapelketa ofizialak emateko, beste kontratu bat egingo da. Kontratua antolatzailearekin sinatuko da. Antolatzaileak pilotarien eta enpresen irudi eskubide guztiak edukitzeko konpromisoa hartuko dute.